

I. INTRODUCCIÓN.

Se calcula que las visitas a las salas de bingo de la Comunidad Autónoma de Euskadi han caído un 50% durante los últimos 10 años. El cierre de salas y la pérdida de empleos han constatado un deterioro de la actividad del bingo. No se trata de un problema meramente coyuntural consecuencia de la actual crisis económica, sino un menoscabo del sector de carácter estructural.

Junto con el descenso del número de visitas, también han caído las ventas brutas del sector (51,7% menos entre 2005 y 2011), el margen bruto empresarial (47,4% menos en el mismo periodo), y la recaudación por la imposición sobre el bingo (28,7% menos solo en el último año).

Si bien los vascos gastaron en el juego durante el 2010 un 10,2% menos que en el 2007, es el juego del bingo el que ha sufrido el descenso más pronunciado: un 23,2%, frente al 3% de caída en las Loterías y Apuestas del Estado.

El propio sector señala como causas del deterioro de la actividad, entre otras: la tributación inadecuada, el tratarse de un juego obsoleto, la imposibilidad de deducir el IVA, la irrupción de los juegos *on-line* y, desde el 2 de enero de 2011, la prohibición de fumar en las salas de bingo.

El aspecto tributario se ha tratado en la mayoría de comunidades autónomas y en países como Italia e Inglaterra. La tendencia es disminuir la tributación del bingo tradicional. Esa medida se ha acompañado, en algunos casos, del cambio a la tributación sobre el *win* (suma de las cantidades jugadas

menos lo destinado a premios), en lugar de sobre el *drop* (suma de las cantidades jugadas sin tener en cuenta lo destinado a premios), del establecimiento de reducciones temporales en los tipos impositivos siempre que se incentive la actividad (supuestos de mantenimiento del empleo, de nueva apertura de salas...), y de la fijación de tramos con tipos impositivos menores para proteger a los bingos de pequeña dimensión.

En la Comunidad Autónoma de Euskadi se ha reducido dos puntos la tributación del juego del bingo, pasando del 24% al 22% sobre el *drop*. Se encontraría, no obstante, tras Asturias (26,7%), Cataluña (25%) y Galicia (23,5%), entre las comunidades autónomas con un tipo impositivo general más alto.

En este artículo se analiza la actividad del juego en Euskadi y se hace especial incapié en la situación del sector del bingo. Para ello se realiza un estudio comparado de la evolución de la tributación del bingo en sus modalidades de tradicional, electrónico y *on-line*, en las distintas Comunidades Autónomas. La comparativa se lleva a cabo homogeneizando las bases imponibles de las diferentes figuras tributarias que gravan el juego del bingo. Gracias a ese estudio comparado es posible determinar si la presión fiscal que soporta este sector en Euskadi está por encima o por debajo de la media estatal.

El mismo análisis se realiza, aunque de un modo más genérico, respecto de la tributación de las máquinas de juego y de los casinos. Asimismo, con el fin de dar una visión lo más completa posible de la tributación del juego en Euskadi, se analiza la evolución de la recaudación tributaria que la actividad genera, y se hace especial mención a la normativa que regula el sector, así como a la Ley 13/2011, de 27 de mayo, de regulación del juego, que establece un nuevo impuesto sobre las operaciones de juego en el ámbito estatal.

(*) Técnica de la Dir. de Administración Tributaria del Dpto. de Economía y Hacienda del Gobierno Vasco

II. JOKO-JARDUERAK EUSKADIN.

Joko-jardueraren joera zein den jakiteko, adierazgarria da aztertzea herritarrek horretarako erabiltzen duten diru-zenbatekoaren bilakaera. Euskadin, 2010. urtean, 1.273 milioi euro gastatu ziren jokoan. Aurreko urteetan gastatu zenarekin alderatuta, beheranzko joera nabaria izan da. Izan ere, 2009. urtean, % 8,6 gehiago gastatu zen jokoan; eta 2007ean, % 10,2.

Alabaina, 2010. urtean jokatutako diru-zenbatekotik 517 milioi euro kudeaketa publikoa duten jokoetan gastatu zituzten herritarrek (Estatuko Loteria eta Apustuak); kudeaketa pribatua dutenetara, berriz, 699 milioi euro bideratu ziren (kasinoak, bingoak, txanpon-makinak); eta azkenik, ONCEren jokoetan gastatutakoa 58 milioi euro izan da.

JOKOA EUSKADIN

	Urtea	Kasinoak	Bingoak	"B" makinak	ELA (1)	ONCE (2)	Guztira
Jokatutako zenbatekoa (milioika eurotan)	2007	90	139	591	533	64	1.418
	2008	84	138	671	530	63	1.485
	2009	72	117	619	527	60	1.394
	2010	70	107	522	517	58	1.273
Jokatutako batez besteko zenbatekoa biztanleko (eurotan)	2007	42	65	276	249	30	663
	2008	39	64	311	245	29	689
	2009	33	54	285	243	28	642
	2010	32	49	240	237	26	585
Gastu erreala (jokatutakoa - saritan banatutakoa) (eurotan)	2007	20	52	148	194	34	446
	2008	18	52	168	193	33	463
	2009	15	43	155	192	31	436
	2010	15	39	157	188	30	428
Batez besteko gastu erreala biztanleko (eurotan)	2007	9	24	69	90	16	209
	2008	8	24	78	89	15	215
	2009	7	20	71	88	14	201
	2010	7	18	72	86	14	197

- (1) Estatuko Loteria eta Apustuak: Loteria Nazionalea, Kiniela, Quinigol, Primitiva, Lototurf eta Quintuple Plus.
 (2) Eguneroko Kupoia, Kuponazoa, Asteburuko Superkupoia, Berezia, 7/39 eta Bat-bateko Loteria.

Iturria: Barne Ministerioaren Espainiako jokoaren 2010. urteko txostena

Kasinoetan jokatutakoa 70 milioi euroraino jaitsi zen 2010. urtean, hau da, 2009. urtearekin alderatuta, % 2,5 gutxiago gastatu zen Euskadiko kasinoetan; eta 2007. urtean gastatutakoarekin erkatuz gero, % 22,7 gutxiago.

Era berean, makinetan jokatutakoa gutxitu egin da. 2010. urtean, 522 milioi euro gastatu zituzten Euskadiko herritarrek txanpon-makinetan; 2009. urtean baino % 15,6 gutxiago, eta 2007. ean baino % 11,7 gutxiago.

Baina are gehiago gutxitu da bingo-jokoan egindako gastua. 2010. urtean, 107 milioi euro bideratu zituzten horretara herritarrek; hau da, 2009. urtean baino % 8,3 gutxiago, eta 2007. ean baino % 23,2 gutxiago.


Halaber, Estatuko Loteria eta Apustuetan, beherakada % 1,9 izan da 2009. urtetik 2010era; eta % 3 2007tik. Ildo beretik, ONCEren jokoek ere beherakada izan dute: % 4,3 da aldea 2009tik 2010era; eta % 10,5, berriz, 2007tik 2010era.

Halatan, 2010. urtean jokatutako batez besteko zenbatekoa 585 euro izan da biztanleko. Horietatik, 240 euro "B" motako makinetan gastatu zituen biztanle bakoitzak; 237 euro Estatuko Loteria eta Apustuetan; 49 euro bingo-jokoan; 32 euro kasinoetan; eta 26 euro ONCEren jokoetan.

Orobat, 2007. urtean biztanle bakoitzak jokatutako batez besteko zenbatekoa 663 euro

izan zen. Hau da, biztanleko beherakada % 11,8 izan da 2007tik 2010era. Beherakada hori joko-mota guztietan gertatu da, batez ere kasinoetan eta bingo-jokoan.

jokoan baino ez da gertatzen; beste jokoetan *win*aren gainean ordaintzen baitira zergak.



Estatuan, 2010. urtean 27.339 milioi euro gastatu zituzten herritarrek jokoetan, eta, ondorioz, urte arteko % 9,2 jaitsiera ekarri zuen. Beherakada hori antzekoa izan da autonomia-erkidego gehienetan, Errioxan eta Nafarroan izan ezik; azken horietan, % 25,7 eta % 17,5 jaitsi baitzen, hurrenez hurren. 2010ean, biztanle bakoitzak jokatutako batez besteko zenbatekoa 581 euro izan da; 2009an baino % 9,7 gutxiago.

III. BINGO-JOKOAREN EGOERA.

Bingo-joko tradizionalan aritzeko, jokalariek kartoiak erosi behar dituzte, eta hartarako, kartoiotan inprimatutako balioa ordaindu behar dute (bakoitzeko 2, 3 edo 6 euro). Hori hala izan dadin, joko-ustiatzaileek aldez aurretik foru-ogasunera jo behar dute bingo-kartoiak erostera, eta dagozkien zerga eta tasa ordaindu (% 22 kartoiaren balioaren gainean). Beraz, zergak joko-jardueraren kostu propio dira egun, eta ustiatzaileek bere gain hartu behar dute horrek erantsia dakarren finantza-kostua. Egoera zaharkitu hori bingo-

2011. urtea bukatzeaz zegoela, Euskal Autonomia Erkidegoan 17 bingo-areto zeuden zabalik. Areto horiek baimenduta duten gehieneko edukiera guztia 5.640 lagunentzakoa da, nahiz eta posible izan 10.000 arteko edukiera baimentzea. Hortaz, okupazio-maila % 56,4 da. Beste joko batzuek, esaterako, makinak, apustuek edo joko-aretoek erabat hartuta daukate baimendu daitekeen gehieneko edukiera.

Izan ere, bingo-aretoen kopurua gutxitu egin da azken urteotan. 1992. urtean 26 bingo-areto zeuden zabalik, baina orduz geroztik 9 itxi egin dira; hau da, % 34,6 murriztu da azken urteetan. 2011. urtean, hain zuzen, 3 itxi dira. Guztira, zabalik jarraitzen duten 17 bingo-areto horietan, 411 lagunek lan egiten dute (56 lagun Araban, 235 Bizkaian eta 120 Gipuzkoan).

BINGO-ARETO KOPURUA	1992	2011
Araba	4	3
Bizkaia	15	11
Gipuzkoa	7	3
Guztira	26	17

Alabaina, bingo-areto askok atearak dituzte, bisiten kopuruak ere beherakada handia izan duelako. 2011. urtean 1.300.000 bisita erregistratu dira, ia-ia 2000. urteko erdia. 2005etik 2011ra bitartean, hain zuzen, jardueraren salmenta gordinak % 51,7 jaitsi dira; hau da, 89 milioi euro gutxiago.

Era berean, jaitsi egin dira bingo-kartoen salmenta, sariak eta bingo-jokoaren gaineko zerga-bilketa.

Horiek horrela, nahiz eta enpresen marjina gordinak azken bost urteotan % 1 gora egin (% 12,477tik % 13,572ra), 10 milioi euroko gale-za izan du: 21,4 milioi eurotik 11,3 milioi eurora; beraz, % 47,4 jaitsi da.

Urtea	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
SALMENTA GORDINAK (milioika eurotan)	171,8	161,0	155,6	138,1	116,6	106,9	83,0
Saldutako bingo-kartoiak (milioika unitatetan)	85,9	80,5	77,8	69,1	58,3	53,4	41,5
Bingo-jokoaren gaineko tasa (milioika eurotan)	34,5	32,1	31,3	27,7	23,2	21,3	15,3
Bingo-jokoaren gaineko zerga (milioika eurotan)	7,0	6,4	6,3	5,6	4,6	4,3	3,0
ZERGA GUZTIRA (milioika eurotan)	41,5	38,5	37,6	33,3	27,8	25,6	18,3
Bingo-kartoen kostua (milioika eurotan)	0,6	0,6	0,6	0,5	0,4	0,4	0,3
Sarien %	63,0	63,0	63,0	62,0	62,0	62,0	64,0
SARIAK (milioika eurotan)	108,2	101,5	98,0	85,6	72,3	66,3	53,1
ENPRESEN MARJINA GORDINA (milioika eurotan)	21,4	20,5	19,4	18,7	16,1	14,6	11,3
ENPRESEN MARJINA GORDINA (%)	12,477	12,720	12,470	13,517	13,773	13,656	13,572

2011. urtean, bingo-jokoaren salmenta gordinak 83 milioi euroraino heldu dira. Kopuru hori honela banatu da:

- % 22, bingo-jokoaren gaineko zerga eta tasa, hau da, 18,3 milioi euroren bingo-kartoiak erosterakoan bilduta;
- % 64, sariak: 53,1 milioi euro banatuta;
- % 0,4, bingo-kartoiak erosteko ordaindu beharrekoa, 310.000 euro;
- % 13,6, enpresen marjina gordinak, hots, 11,3 milioi euro, jardueraren beste kostu batzuei aurre egiteko (langileak, Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazioak, hornidurak, kontsumoak...).

Bai Euskadin, bai Estatuan bingo-jarduerak behera egin izanaren zergatien artean hauek aipatzen ditu joko-sektoreak berak: zergapetze desegokia, eskaintza murriztua duen zaharkitutako jokoak, jasandako BEZa ezin kendu

izatea², *on-line* jokoak agertu izana eta, 2011ko urtarrilaren 2tik aurrera, tabakoaren aurkako legea.

² BEZa ordaintzetik salbuetsita daude jokoaren eta ausazko konbinaketen gaineko zerga-egitateak diren jarduerak; salbuespen hori bingoaren kudeaketa-zerbitzuetara ere hedatzen da (Lurralde Historikoetan BEZa arautzen duten xedapenetako 20.19 artikulua). Horren ondorioz, bingo-jokoak ustiatzen duten enpresek ezin dute berreskuratu hornitzaileek jasanarazitako edo erosketetan jasandako BEZa. Jasandako BEZaren zatia berreskuratu ahal izateko hainbanaketa-erregela soilik da aplikagarri, zergari loturik eta zerga horretatik salbuetsi barik dauden bestelako eragiketak egiten badira. Hainbanaketa hori kalkulatzeko izendatzailean konputatuko da bingo-kartoiak saltzean lortutako zenbateko osoa. Hortaz, ezin izango da kendu sarietara zuzendutakoa.

IV. BINGO-JOKOAREN GAINENKO ZERGAREN ORDAINKETA.³

Autonomia-erkidegoek ezarrita duten bingo-jokoaren gaineko zergaren ordainketa erkatuz gero hiru joera antzematen dira 2007-2012 bitarteko epean. Batzuek ezer gutxi aldatu dute euren zergapetzea; beste batzuek presio fiskala igo egin dute; eta azkenik, autonomia-erkidego gehienetan jaitsi egin dituzte ordaindu beharreko zenbatekoak.

Bingo tradizionalaren zergaren ordainketak ez du ia aldaketarik eduki autonomia-erkidego hauetan: Errioxa, Aragoi, Kanariak, Galizia, Asturias eta Gaztela eta Leon.

Alde batetik, **Errioxan, Aragoian eta Kanarrietan**, % 20ko zerga-tasa orokorra aplikatzen da jokaturakoaren gainean. Hala ere, Errioxan, 2010. urtetik aurrera zerga-oinarria *wina* izatera pasatu da (% 58,82), eta tasa murriztua aplikatzeko aukera dago (2011. urtean % 57 eta 2012.ean % 50), betiere, enplegua mantentzen bada. Errioxak, gainera, berariazko zerga-tasa dauka ezarrita bingo elektronikoa-aren gainean: % 30 *winaren* gainean, hain zuzen.

Nolanahi ere, Aragoiko Gorteen onartu berria dute 3/2012 Legea, martxoaren 8koa, Aragoiko Autonomia Erkidegoko zerga- eta administrazio-neurriei buruzkoa. Ondorioz, lurralde horretan ere bingo tradizionalaren zerga-oinarria *wina* da, egun; jokaturakoaren % 35,5, hain zuzen. Hala ere, ordaindu beharreko zenbatekoak berdina izaten jarraitzen du (% 56,33 / *win* = % 20 / *drop*). Zerga-oinarria eta -tasa aldatu ez ezik lege berriak % murriztua aplikatzeko aukera ere ezartzen du (%

50,7 *winaren* gainean), enplegua mantenduz gero. Azkenik, autonomia-erkidego honek ere berariazko zerga-tasa ezarri du bingo elektronikoa-aren gainean: % 35,5 *winaren* gainean (enplegua mantentzen badute, berriz, % 20 aplikatuko da).

Beste alde batetik, **Galizia eta Asturias** zerga-tasa altuena daukaten autonomia-erkidegoen artean kokatzen dira: bata % 23,5; eta besteak % 26,7, hurrenez hurren, *droparen* gainean. Galizian, halaber, 2012. urtean zerga-tasa murriztuak aplikatu daitezke, enplegua mantentzen bada (% 3,75ko zerga eta % 15eko tasa). Bingo elektronikoa-ri ere berariazko zerga-tasa ezarri diote: % 37,5 *winaren* gainean (% 7,5eko zerga eta % 30eko tasa), eta enplegua mantentzen bada % 30 aplikatzeko aukera dago (% 5eko zerga eta % 25eko tasa).

Asturiasko Printzerrian, berriz, 2012ko aurrekontuen lege proiektua baztertzearekin eta legegintzaldia amaitu aurretik egindako hauteskundeetarako deialdiarekin, bertan behera geratu zen bingo-jokoaren gaineko tasa murriztea aurreikusten zuen proiektua. Proiektu horrek 3 puntuko jaitziera ezartzen zion bingoaren gaineko tasari (% 20tik % 17ra), eta tasa gutxitua ere ezartzen zuen, enplegua mantentzekotan (% 15).

Azkenik, **Gaztela eta Leonen**, bingoaren gaineko zerga-ordainketak aldaketa batzuk izan ditu 2007tik 2012ra bitartean. 2011. urtean eta 2012.ean tasak hiru tarte desberdin dauka jokaturako zenbatekoaren arabera: % 50, *winaren* gainean jokaturakoa 5 milioi euro baino gutxiago bada; % 52,5, jokaturakoa 5 milioi eta 15 milioien artean badago; eta % 55, gehiago bada. Aldi berean, tasa gutxitua aplikatuko da (2011n % 43,5, eta 2012an % 35), langilerik kaleratzen ez bada, eta hasierako lau urteetan bingo-areto berriak zabaltzekotan.

³ Atal honetan bingo-jokoaren zerga-ordainketa aztertuko da: tradizionala, elektronikoa eta *on-line*.

Bingo-joko tradizionala aztertzeko, batu egin dira jokoaren gaineko tasa eta bingo-jokoaren gaineko zerga. Horrez gain, autonomia-erkidegoen arteko konparazioa egin ahal izateko, aldatu egin dira *winaren* gainean ezarritako zerga-tasak, *droparen* gainean emanez guztiak.

BINGO TRADIZIONALAREN ZERGA-ORDAINKETA (2007-2012)

AUTONOMIA- ERKIDEGOA	Zerga+tasa				2007				2010				2011				2012			
	(1)				zerga		tasa		zerga		tasa		zerga		tasa		zerga		tasa	
	2007	2010	2011	2012	%	zerga-oinar.	%	zerga-oinar.	%	zerga-oinar.	%	zerga-oinar.	%	zerga-oinar.	%	zerga-oinar.	%	zerga-oinar.	%	zerga-oinar.
ANDALUZIA	24,5	23,5	23,5	20,0			24,5	drop			23,5	drop			23,5	drop			20,0	drop
ARAGOI (2)	20,0	20,0	20,0	20,0			20,0	drop			20,0	drop			20,0	drop			56,33	win
ASTURIAS (3)	26,7	26,7	26,7	26,7	10,0	sariak	20,0	drop	10,0	sariak	20,0	drop	10,0	sariak	20,0	drop	10,0	sariak	20,0	drop
BALEARRAK (4)	29,5	25,5	25,5	19,0			31,0	drop sariak			31,0	drop sariak			31,0	drop sariak			19,0	drop
ERRIOXA (5)	20,0	20,0	20,0	20,0			20,0	drop			58,82	win			58,82	win			58,82	win
EUSKADI	24,0	24,0	22,0	22,0	4,0	drop	20,0	drop	4,0	drop	20,0	drop	3,6	drop	18,4	drop	3,6	drop	18,4	drop
EXTREMADURA	20,0	20,0	22,0	21,0			20,0	drop			20,0	drop			22,0	drop			21,0	drop
GALIZIA	23,5	23,5	23,5	23,5	5,0	drop % 70	20,0	drop	5,0	drop % 70	20,0	drop	5,0	drop % 70	20,0	drop	5,0	drop % 70	20,0	drop
GAZTELA ETA LEON (6)	19,2	20,0	19,3	19,3			60,0	win			20,0	drop			55,0	win			55,0	win
GAZTELA-MANTXA	20,0	24,5	23,0	23,0			20,0	drop			24,5	drop			23,0	drop			20,0	drop
KANARIAK	20,0	20,0	20,0	20,0			20,0	drop			20,0	drop			20,0	drop			20,0	drop
KANTABRIA (7)	23,3	21,6	21,6	19,6			25,0	drop sariak			23,0	drop sariak			23,0	drop sariak			56,0	win
KATALUNIA	20,0	25,0	25,0	25,0			20,0	drop			25,0	drop			25,0	drop			25,0	drop
MADRILGO ERKIDEGOA (8)	24,9	22,0	15,0	15,0	6/7	sariak	20,0	drop			22,0	drop			15,0	drop			15,0	drop
MURTZIA (9)	24,1	22,0	22,0	20,7	6,0	sariak	20,0	drop	6,0	sariak	18,0	drop	6,0	sariak	18,0	drop	6,0	sariak	55,0	win
NAFARROA (10)	26,8	26,6	24,3	23,0	10,0	sariak	20,0	drop	10,0	sariak	20,0	drop	10,0	sariak	52,0	win	10,0	sariak	47,0	win
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	26,0	23,0	23,0	18,0			26,0	drop			23,0	drop			23,0	drop			18,0	drop
Batez bestekoa	23,1	22,8	22,1	20,9																

(1) Sarietan banatzen den % kontuan izanda, zutabe honetako zerga-tasa guztiak jokoaren gainean ematen dira; *drop*aren gainean, alegia.

(2) Aragoi. 2012an eta 2013an enplegua mantenduz gero, % 50,7 *win*aren gainean aplikatuko da.

(3) Asturias. Jokaturakoaren % 67 sariak banatzera zuzendua.

(4) Balearrak. Tasa hauxe da: 2010ean eta 2011n, % 17,6 *drop*aren gainean, eta % 13,4 sarien gainean. Bestalde, 2007an, sarietara zuzendutakoa % 57 da; eta 2010ean eta 2011n % 59.

(5) Errioxa. Jokaturakoaren % 66 sariak banatzera zuzenduta. Hala ere, zerga-tasa murriztua aplikatuz gero, sarietara zuzendutakoa jokaturakoaren % 67 izango da, 2011n, eta % 69, 2012an.

(6) Gaztela eta Leon. Sarietara bideratutakoa 2007an % 68 da; eta 2011n eta 2012an % 65.

(7) Kantabria. Tasa hauxe da: 2007an, % 20 *drop*aren gainean eta % 5 sarien gainean; 2010ean eta 2011n, % 19 *drop*aren gainean eta % 4 sarien gainean. Sarietara zuzendutakoa, berriz, % 65 da.

(8) Madrilgo Erkidegoa. 2007an sarietan banatutakoa, jokaturakoaren % 70 da.

(9) Murtzia. Sarietan banatutakoa hauxe da: 2007an, jokaturakoaren % 68; 2010ean eta 2011n, % 67; eta 2012an, % 70. Bestalde, 2010ean eta 2011n enplegua mantentzen duten bingo-aretoek % 10eko dedukzioa aplikatu ahal izango dute tasaren gainean.

(10) Nafarroa. Sarietara zuzendutakoa hauxe da: 2007an, % 68; 2010ean eta 2011n, % 66; eta 2012an, % 65.

Horrez gain, autonomia-erkidego horrek berriazko zerga-tasa dauka ezarrita bingo elektronikoaren arloan (% 25 *winaren* gainean; 2011. urtean % 30) bai eta, *on-line* bingoaren kasuan ere (% 10 *winaren* gainean).

Askoz ere gutxiago dira bingo-jokoaren gaineko zergapetzea igo duten autonomia-erkidegoak. Honako hiru hauei buruz ari gara: Katalunia, Gaztela-Mantxa eta Extremadura.

Kataluniak igo du gehien zerga-tasa: 5 puntu, % 20tik % 25era; **Gaztela-Mantxak**, berriz, 3 puntu igo ditu, % 20tik % 23ra; eta, **Extremadurak**, azkenik, puntu bakarra, % 20tik % 21era. Halaber, Gaztela-Mantxan, 2010ean % 24,5eraino zergapetu zuten jokaturakoa; eta Extremaduran, 2011n, % 22raino. Autonomia-erkidego horietan ere bingo elektronikoak berriazko zerga-tasa dauka ezarrita (% 30 *winaren* gainean); eta Extremaduran, gainera, *on-line* jokaturako bingoak *winaren* gaineko % 10eko zerga ordaindu beharko du.

Aitzitik, Gaztela-Mantxako Gorteek onartu berria dute 2/2012 Legea, apirilaren 19koa, lagatuko zergen inguruko neurriak eta bestelako neurri fiskalak ezartzen dituen abenduaren 4ko 9/2008 Legea aldatzen duena. Horren bidez, bingo tradizionalaren gaineko zerga-tasa jaitsi egin dute, eta 2007an zegoen karga bera ezarri, hau da, % 20 jokaturakoaren gainean.

Beste autonomia-erkidego guztietan gutxitu egin da bingo tradizionalaren gaineko zergaren ordainketa, hauetan, hain zuzen: Andaluzian, Balearretan, Kantabrian, Madrilgo Erkidegoan, Murtziako Eskualdean, Valentziako Erkidegoan, Nafarroan eta Euskadin.

Andaluzian, 2012an, 3,5 puntu egin du behera zerga-tasak. Urte horretan, bingo elektronikoari eta bingo *on-linei* ere berriazko zerga-tasa ezarri zaio: % 30 *winaren* gainean.

Balearretan ere, 2007an ezarritako % 29,5 zerga-tasa (% 27,5 jokaturakoaren gainean eta % 3,5 sarien gainean) % 19raino jaitsi da 2012an.

Modu berean, **Kantabrian**, 2007ko zerga-tasak ia 4 puntu egin du behera, % 23,3tik (% 20 jokaturakoaren gainean eta % 5 sariak jasanarazita) 2012ko % 19,6ra, hau da, *winaren* gaineko % 56ra (% 45 bingo-kartoiak eroterakoan aplikatzen da eta beste % 11 sariak jasanarazten dute).

Madrilgo Erkidegoan, presio fiskalak 5 puntu egin du behera, 2007ko % 24,9tik 2012ko % 15era. Autonomia-erkidego horretan 2008ko urtarrilaren 1era arte indarrean egon da bingo-jokoaren sarien gaineko zerga. Zerga horrek % 6 kargatzen zituen sarietan banaturako lehenengo 3.005,00 euro; zenbateko horretatik gorakoak % 7ko zama zuen. Zerga hori kendu izana tasaren igoerarekin konpentatu zen neurri batean (*droparen* gaineko % 20tik % 22ra igo baitzen); baina igoera hori beherantz egin zuen 2011n. Izan ere, urte horretan, zerga-tasa % 15eraino jaitsi eta gaur arte bere horretan mantendu da.

Beraz, gaur egun bingo tradizionalaren gaineko zerga-tasarik txikiena Madrilgo Erkidegoarena da. Bingo elektronikoak, berriz, % 30eko karga dauka, *winaren* gainean; eta *on-line* jokaturako bingoak, ordea, % 10ekoa.

Era berean, **Murtzian**, 2007ko % 24,1 zerga-tasa (% 6 sarien gainean eta % 20 *droparen* gainean), % 20,7raino jaitsi da 2012an (% 6 sarien gainean eta % 40 *winaren* gainean jokaturakoa 7,5 milioi euro baino gutxiago bada, % 50 jokaturakoa 7,5 eta 15 milioi euroren artean badago, eta % 55 jokaturakoa 15 milioitik gorakoa bada). Beraz, 3,4 puntu jaitsi da gehieneko tasarekin alderatuz gero; 4,9 puntu erdiko tasarekin; eta 7,9 txikienarekin. Bestalde, bingo elektronikoak ere berriazko zerga-tasa dauka ezarrita: % 30 *winaren* gainean.

Ildo beretik, **Valentziako Erkidegoak** ere jait-si egin du zerga-tasa: % 26tik (2007an) % 23ra (2010ean eta 2011n). 2012. urtean, berriz, zerga-tasa desberdina aplikatzen da urtealdian jokaturako bingo-kartoen ageriko balioen zenbateko metatuaren arabera, Murtziako Eskualdeak ezarrita duen antzera. Hau da, % 2, jokaturakoa 400 mila euro baino gutxiago bada (lehenengo 200 mila eurogatik ez da tasarik ordainduko); % 15, jokaturakoa 400 mila eta 3 milioi euroren artean badago; % 16, jokaturakoa 3 eta 8 milioi euroren artean egonez gero; eta % 18, jokaturako zenbatekoa handiagoa bada. Beraz, gutxieneko jaitziera 8 puntukoa da, eta, horren ondorioz, Madrilen atzetik zama txikien duen autonomia-erkidegoa da.

Nafarroan ere, bingoaren zerga-tasa jaitzsi egin da. Alde batetik, tasak, % 20tik (2007an) % 17,68ra (2011n) egin du behera; eta jaisten jarraitu du 2012ko % 16,45eraino (azken hori, kontuan harturik sarietara zuzendutakoa % 65 dela, gaur egun tasa *win*aren gainean baitago ezarrita: % 47).

Beste alde batetik, Nafarroan luxuzko gastuen gaineko zerga dago araututa. Zerga horrek, 2/1995 Foru Legean oinarriturik (martxoaren 10ekoa, Nafarroako toki ogasunei buruzkoa), bingo-jokoan lortutako sariak kargatzen ditu. Foru Lege horri jarraituz, udalerriek sarien gaineko zuzeneko zerga ezarri eta exijitu dezakete. Hortaz, zergaren subjektu pasiboa saritutakoa izango da, nahiz eta jokoa antolatzen duen enpresak atxiki behar ordaindu beharreko tributuzorria. Ehunekoa ordenantza fiskalaren bidez ezarriko da, eta ez du % 10 gaintutuko. Gauzak horrela, Iruñean % 8 dago ezarrita; eta Tuteran, berriz, % 4.

Beraz, aipatutako tasa eta zerga kontuan hartuz, Iruñean bingo-jokoaren gaineko kargak 3,8 puntu egin du behera (2007ko % 25,44tik 2012ko % 21,65ra); eta, ildo beretik, Tuteran, 3,67 puntu jaitzsi da (2007ko % 22,72tik 2012ko % 19,05ra).

Halaber, **Euskal Autonomia Erkidegoan**, 2011ko martxoaren 1etik aurrera, Lurralde Historikoei 1,6 puntu gutxitu dute bingoari aplikatzen zaion jokoaren gaineko zerga (% 20tik % 18,4ra). Data beretik aurrera, urriaren 16ko 6/1992 Legeak ezartzen duen bingo-jokoaren gaineko zergak 0,4 puntu egin du behera (% 4tik % 3,6ra).

Guztira, 2 puntu jaitzsi da bingo-jokoak daukan zerga-tasa Euskadin; hau da, jokaturakoaren % 24tik % 22ra. Hortaz, kontuan izanda autonomia-erkidegoen batez besteko presio fiskala % 20,9 dela, gure erkidegoa 1,1 puntu gainetik dago.

Gurean ere, ezin utzi aipatu barik 2012ko martxoaren 14tik aurrera bingo elektronikoa merkataritza-proban dela, 4 hilabeteko epean, *win*aren gaineko % 10eko kargarekin.

Bukatzeko, Espainiako estatutik kanpoko egoera zein den antzemateko, aipamen laburra egin behar diegu Ingalaterrari eta Italiari, oso adierazgarriak baitira bi ereduok.

Alde batetik, **Ingalaterran**⁴, bingo-jokoaren gaineko zerga % 15 da *win* garbiaren gainean, hau da, BEZa kenduta. Horretaz gain, bingo-jokoaren enpresariak malgutasunez jokatzeko dute sarietan banatutako den ehunekoa zehazterakoan, momentuan erabakitzen baitute egokiena deritzotena.

Gehienetan, jokaturakoaren % 80a bideratzen denez sarietara, bingoaren gaineko zerga % 5,53 baino ez da izaten, betiere *drop*aren edo jokaturakoaren gainean.

Beste alde batetik, **Italian**, araudia aldatu dute, bingo-jokoaren fakturazioaren jaitziera ekiditeko eta aretoen itxiera saihesteko; izan

⁴ Ingalaterra da bingo-jokoak antzinasun handien duen Europako herrialdea. Izan ere, 1966. urtean eman zen bingoari buruzko lehenengo araudia. Horrek Europa osoko enpresarien interesa piztu zuen, eta 70eko hamarkadan "bingo modernoaren sukarra" izenarekin ezagutu zena eragin zuen.

ere, sarietara zuzentzen diren ehunekoak handitu dituzte eta zergak murriztu. Hortaz, sarietan banatzen dena jokaturakoaren % 70 izatera pasatu da (aldatu aurretik % 58 zen), eta bingoaren gaineko zerga % 23,8tik % 12ra jaitsi dute. Hala ere, horrek ez du ekarri enpresariari marjina handitzea, % 18an mantendu baita.

Araudiaren aldaketak berehalako ondorio positiboa eragin du bingo-kartoen salmentabolumenean. Suspertze horren giltzarritzat jotzen da sariak handitu izana. Izan ere, 2009ko azarora arte salmentek izandako joera negatiboa (% 10eko batezbesteko beherakadak), berehala alderantzikatu da, eta bi digituko igoerak ekarri ditu.

BINGO ELEKTRONIKOAREN ETA *ON-LINE* BINGOAREN ZERGA-ORDAINKETA (2007-2010)

AUTONOMIA-ERKIDEGOA	bingo elektronikoaren tasa				<i>on-line</i> bingoaren tasa			
	% win				% win			
	2007	2010	2011	2012	2007	2010	2011	2012
ANDALUZIA				30,0				30,0
ARAGOI				35,5				
ASTURIAS								
BALEARRAK								
ERRIOXA		30,0	30,0	30,0				
EUSKADI								
EXTREMADURA			30,0	30,0			10,0	10,0
GALIZIA				37,5				
GAZTELA ETA LEON		30,0	30,0	25,0		10,0	10,0	10,0
GAZTELA-MANTXA			30,0	30,0				
KANARIAK								
KANTABRIA								
KATALUNIA								
MADRILGO ERK.	30,0	30,0	30,0	30,0		10,0	10,0	10,0
MURTZIA	30,0	30,0	30,0	30,0				
NAFARROA								
VALENTZIAKO ERK.								
batez bestekoa	30,0	30,0	30,0	30,3		10,0	10,0	15,0

V.JOKO-MAKINEN GAINEKO ZERGAREN ORDAINKETA.⁵

"B" motako makinak edo sari programatutako jolas-makinak (*txanponjaleak* ostalaritza alorreko establezimenduetan), prezio baten truke erabiltzaileari erabilera-denbora bat ematen diotenak dira, eta, kasu batzuetan, esku-diruzko saria ematen diotenak.

Aitzitik, "C" motako makinak edo zorizko makinak (gehienetan kasinoetan egoten dira), prezio baten truke erabiltzaileari erabilera-denbora bat ematen diotenak dira, eta,

⁵ Atal honetan "B" eta "C" motako makinaren zergaren ordainketa aztertuko da. Autonomia-erkidegoen arteko konparazioa egin ahal izateko kontuan hartu dira jokalaririk bakarrak hartzen duela parte jokoan eta zerga-kuota guztiak urteko kuota direla.

kasu batzuetan, zoriaren arabera esku-diruzko saria ematen diotenak.

Mota bietan, jokoan parte hartzen duten jokalariren kopuruaren arabera aldatzen da Zori, Enbido eta Adur Jokoen gaineko Tasa, eta, autonomia-erkidego bakoitzak bere zerga-kuota ezarri ditu.

"B" motako makinei dagokienez, 2012. urteko kuota baxuena Nafarroakoa da: 3.000 eurokoa, hain zuzen. Horren ostean, Euskal Autonomia Erkidegoa dator 3.080 euroekin. Beste muturrean, berriz, kuota altuena Galiziarena da: 3.740 eurokoa. Halatan, guztiak kontuan hartuta, batez besteko zerga-kuota 3.497 euro da; eta Euskadik ezarritako duena batez bestekoa baino % 11,92 baxuagoa da.

"B" MOTAKO MAKINEN ZERGA-ORDAINKETA (2007-2012)

AUTONOMIA- ERKIDEGOA	urteko kuota (€) (jokalari bakarra)					aldea (2012-2007)
	2007	2009	2010	2011	2012	
ANDALUZIA	3.272,67	3.272,67	3.272,67	3.272,67	3.272,67	-
ARAGOI	3.650,00	3.722,00	3.722,00	3.722,00	3.722,00	72,00
ASTURIAS	3.600,00	3.700,00	3.700,00	3.700,00	3.700,00	100,00
BALEARRAK	3.467,00	3.467,00	3.467,00	3.467,00	3.467,00	-
ERRIOXA	3.640,00	3.736,00	3.700,00	3.656,00	3.600,00	-40,00
EUSKADI	3.080,00	3.080,00	3.080,00	3.080,00	3.080,00	-
EXTREMADURA	3.335,00	3.470,00	3.505,00	3.540,05	3.400,00	65,00
GALIZIA	3.588,00	3.740,00	3.740,00	3.740,00	3.740,00	152,00
GAZTELA ETA LEON	3.600,00	3.600,00	3.600,00	3.600,00	3.600,00	-
GAZTELA-MANTXA	3.700,00	3.700,00	3.700,00	3.700,00	3.700,00	-
KANARIAK	3.402,29	3.402,29	3.402,29	3.402,29	3.487,34	85,05
KANTABRIA	3.600,00	3.600,00	3.600,00	3.600,00	3.600,00	-
KATALUNIA	3.656,00	3.656,00	3.656,00	3.656,00	3.656,00	-
MADRILGO ERK.	3.600,00	3.600,00	3.600,00	3.600,00	3.600,00	-
MURTZIA	3.620,00	3.620,00	3.620,00	3.620,00	3.620,00	-
NAFARROA	2.845,80	2.845,80	2.845,80	3.500,00	3.000,00	154,20
VALENTZIAKO ERK.	3.832,86	3.832,86	3.832,86	3.832,86	3.200,00	-632,86
batez bestekoa	3.499,39	3.532,04	3.531,98	3.406,88	3.496,77	-2,62

Autonomia-erkidego gehienek ez dute zerga-kuota aldatu 2007. urtetik hona. Horien artean, Euskal Autonomia Erkidegoa dago. Izan ere, gure erkidegoan indarrean dugun kuota honelaxe dago osatuta: alde batetik, lurralde historikoek ezarritako tasa⁶, hau da, 2.750 euro; eta beste alde batetik, urriaren 16ko 6/1992 Legeak⁷ ezarritako tasa horren gaineko % 12ko errekarua, hau da, 330 euro; guztira, 3.080 euro urteko, "B" motako makina bakoitzeko.

Hala ere, autonomia-erkidego batzuk 2007tik hona aldatu egin dute euren zerga-

kuota. Aragoi, Asturiasen, Extremaduran, Galizian, Kanarietan eta Nafarroan igo egin da (gutxien igo duena Extremadura da, 65 euro; eta gehien, Nafarroa, 154 euro). Dena dela, Extremaduran eta Nafarroan azken urtean jaitsi egin dute zerga-kuota.

Aipatzeko geratzen diren autonomia-erkidegoetan, tasak behera egin du, hots, Errioxan (40 euro), eta Valentziako Erkidegoan (633 euro). Azken horrek izan du beherakadarik handiena.

Illo beretik, "C" motako makinaren gaineko zergapetzea aztertuta, kasu honetan ere, autonomia-erkidego gehienetan 2007. urtetik hona ez da zerga-kuota aldatu. Horien artean, oraingoan ere, Euskal Autonomia Erkidegoa dago 4.508 euroko kuotarekin (4.025 euroko kuotari % 12ko errekarua gehituta. Ikusi 6. eta 7. oin-oharrak).

Edonola ere, autonomia-erkidego batzuetan zerga-kuota aldatu egin da. Hauetan, hain zuzen, igo egin da: Aragoi, Asturias, Extremadura eta Galizia. Igoerarik handiena, Galiziak izan du (224 euro); eta baxuena, berriz, Extremadurak (83 euro). Azken horretan, gainera, nahiz eta 2007tik hona kuota igo egin den, 2012koa baxuagoa da aurreko urtekoa baino.

⁶ 5/2005 Foru Araua, otsailaren 14koa, Arabako Lurralde Historikoan Jokoaren gaineko Zerga Arautzekoa (ALHAO 25. zk. 2005eko otsailaren 28a).

Bizkaiko Lurralde Historikoan Jokoaren gaineko Zerga arautzen duen martxoaren 10eko 2005/3 Foru-Araua (BAO 55. zk. 2005eko martxoaren 21a).

Otsailaren 1eko 1/2005 Foru Araua, Gipuzkoako Jokoaren gaineko Zergari buruzkoa (GAO 24. zk. 2005eko otsailaren 7a).

⁷ 6/1992 Legea, urriaren 16koa, Bingo Jokuaren gaineko Zergari eta zoripeco Jokuak egiteko bide ematen duten makinez eta gailu automatikoez baliatuz egiten diren jokuen gaineko Tasaren errekaruari buruzkoa dena (EHAA 213 zk. 1992ko azaroaren 2a). Honakoak aldatu zuena: 6/1995 Legea, abenduaren 29koa, Euskal Autonomi Elkarteo 1996. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen (EHAA 248 zk. 1995eko abenduaren 30a).

"C" MOTAKO MAKINEN ZERGA-ORDAINKETA (2007-2012)

AUTONOMIA- ERKIDEGOA	urteko kuota (€) (jokalari bakarra)					aldea (2012-2007)
	2007	2009	2010	2011	2012	
ANDALUZIA	4.623,89	4.623,89	4.623,89	4.623,89	4.623,89	-
ARAGOI	5.354,00	5.460,00	5.460,00	5.460,00	5.460,00	106,00
ASTURIAS	5.300,00	5.400,00	5.400,00	5.400,00	5.400,00	100,00
BALEARRAK	4.946,00	4.946,00	4.946,00	4.946,00	4.946,00	-
ERRIOXA	5.720,0	5.872,00	5.872,00	5.872,00	4.600,00	-1.120,00
EUSKADI	4.508,00	4.508,00	4.508,00	4.508,00	4.508,00	-
EXTREMADURA	4.617,00	4.803,00	4.850,00	4.898,50	4.700,00	83,00
GALIZIA	5.236,00	5.460,00	5.460,00	5.460,00	5.460,00	224,00
GAZTELA ETA LEON	5.265,00	5.265,00	5.265,00	5.265,00	5.265,00	-
GAZTELA-MANTXA	5.300,00	5.300,00	5.300,00	5.300,00	5.300,00	-
KANARIAK	4.207,08	4.207,08	4.207,08	4.207,08	4.207,08	-
KANTABRIA	5.600,00	5.600,00	5.600,00	5.600,00	5.600,00	-
KATALUNIA	5.264,00	5.264,00	5.264,00	5.264,00	5.264,00	-
MADRILGO ERK.	5.400,00	5.400,00	5.400,00	5.400,00	5.400,00	-
MURTZIA	5.300,00	5.300,00	5.300,00	5.300,00	5.300,00	-
NAFARROA	4.020,77	4.020,77	4.020,77	4.020,00	4.020,00	-0,77
VALENTZIAKO ERK.	5.950,50	5.950,50	5.950,50	5.950,50	4.600,00	-1.350,50
batez bestekoa	5.094,84	5.140,01	5.142,78	4.980,60	4.979,65	-115,19

Aitzitik, urteko kuota txikitu egin da hauetan: Errioxan (1.120 euroko beherakada); eta, batez ere, Valentiako Erkidegoan (1.350 euro).

Ondorioz, 2012ko kuotarik baxuena Nafarroakoa da, hots, 4.020 euro; eta altuena, Kantabriakoa, hain zuzen, 5.600 euro. Hori guztia kontuan harturik, autonomia-erkidegoen batez besteko kuota 4.980 euro da; hortaz, Euskadin, % 9,5 gutxiago ordaintzen da.

VI. KASINOEN GAINEKO ZERGAREN ORDAINKETA.

Euskal Autonomia Erkidegoan, jokoaren bi-tartez lortzen diren diru-sarrerak gordinek osatzen dute zerga-oinarria kasinoko jokoetan. Ondorio horietarako, diru-sarrerak gordina izango da diru-sarreraren zenbateko osoari jokalariei irabazietan edo sarietan ordaindu-tako zenbatekoak kenduta ateratzen den emaitza; hau da, *wina*. Aitzitik, joko-aretoetan sartzeko ordaindu beharrekoa ez da aintzat hartuko. Zerga-oinarri hori tarte biko tarifa hau aplikatu zaio: % 20ko tarifa, 2 milioi euro-raino; eta % 33koa, hortik gorakoari.

Tarte horiek independenteak dira; beraz, zerga-oinarriaren zati bakoitzak dagokion tartean ezarritako tasaren arabera tributatu du.

Autonomia-erkidego bakoitzak bere tarifa dauka indarrean. Zerga-kuota txikiena Valentiako Erkidegoarena da, % 15arekin tarte baxuenean; eta handiena, tarte altuenean, Kantabria, Galizia eta Errioxarena, % 60arekin. Errioxan, hain zuzen, tarte berdinetan honako tarifa murriztua aplikatzeko aukera dago, enplegua mantentzekotan: 2010ean eta 2011n, % 22, % 35, % 40 eta % 50; eta 2012an, % 10, % 30, % 40 eta % 50.

Baina ez da Errioxa bakarrik enplegua mantentzeko helburuarekin tarifa murriztuen pizgarria ezarri duena; beste zenbait autonomia-erkidegok ere, berdin jokatu dute: Balearretan, esaterako, tarte berdinen gainean eta 2010ean eta 2011n, % 20, % 37, % 47 eta % 58 aplikatzeko aukera dago; Gaztela eta Leonen, halaber, langilerik ez kaleratzeak duen abantaila, 2012an, eta tarte berdinetan, % 17, % 30, % 39 eta % 48 aplikatzea da; Murtzian, berebat, zergaren likidazio bakoitzari % 15eko kenkaria aplikatzea 2012an (2010ean eta 2011n, berriz, % 10ekoa), betiere, enplegua mantenduz gero.

Gaztela-Mantxan ere jarduera sustatzeko asmoarekin eta kasino berriak zabaltze aldera, irekiera berriaren lizentziak baimentzen duen epean zehar, bai eta baimen hori beritzeak dakarren epe osoan, % 10eko tarifa murriztua aplikatu da.

AUTONOMIA- ERKIDEGOA	2007	2009	2010	2011	2012
	zerga-oinarria/tarifa	zerga-oinarria/tarifa	zerga-oinarria/tarifa	zerga-oinarria/tarifa	zerga-oinarria/tarifa
ANDALUZIA	0-1.421.869,63: % 22 1.421.869,64-2.352.547,93: % 38,5 2.352.547,94-4.692.169,78: % 49,5 hortik gorakoak: % 60,5			0-2.000.000: % 20 2.000.001-3.500.000: % 35 3.500.001-5.000.000: % 48 hortik gorakoak: % 58	
ARAGOI				0 - 1.322.226,63: % 20 1.322.226,64 - 2.187.684,06: % 35 2.187.684,07 - 4.363.347,88: % 45 hortik gorakoak: % 55	
ASTURIAS				0-1.359.600: % 20 1.359.601-2.250.550: % 35 2.250.551-4.490.800: % 45 hortik gorakoak: % 55	
BALEARRAK	0-1.761.695: % 22 1.761.695,01-2.914.805: % 40 2.914.805,01-5.813.595: % 50 hortik gorakoak: % 61	0-1.891.664,01: % 22 1.891.664,02-3.129.807,44: % 40 3.129.807,44-6.242.493,19: % 50 hortik gorakoak: % 61		0-1.929.497,29: % 22 1.929.497,30-3.192.403,59: % 40 3.192.403,60-6.367.342,99: % 50 hortik gorakoak: % 61	0-1.987.381,90: % 21 1.987.381,91-3.288.176,10: % 39 3.288.176,11-6.558.363,20: % 49 hortik gorakoak: % 59,50
ERRIOXA				0-1.323.000: % 24 1.323.000,01-2.190.300: % 38 2.190.300,01-4.365.900: % 49 hortik gorakoak: % 60	0-2.000.000: % 24 2.000.000,01-4.000.000: % 38 4.000.000,01-6.000.000: % 49 hortik gorakoak: % 60
EUSKADI	0-1.890.000,00: % 20 1.890.000,01-6.300.000,00: % 35 hortik gorakoak: % 50		0-2.000.000: % 20 hortik gorakoak: % 35		0-2.000.000: % 20 hortik gorakoak: % 33
EXTREMADURA	0-1.322.226,63: % 20 1.322.226,64-2.187.684,06: % 35 2.187.684,07-4.363.347,88: % 45 hortik gorakoak: % 55		0 y 1.573.200: % 20 1.573.201-2.599.000: % 35 2.599.001-5.172.500: % 45 hortik gorakoak: % 55		0-2.000.000: % 20 2.000.000,01-3.500.000,00: % 35 3.500.000,01-5.000.000: % 45 hortik gorakoak: % 55
GALIZIA	0-1.612.079: % 22 1.612.079,01-2.667.259: % 38 2.667.259,01-5.319.866: % 49 hortik gorakoak: % 60			0-1.677.207: % 22 1.677.207,01-2.775.016: % 38 2.775.016,01-5.534.788: % 49 hortik gorakoak: % 60	
GAZTELA ETA LEON	0-1.573.200: % 20 1.573.201-2.599.000: % 35 2.599.001-5.172.500: % 45 hortik gorakoak: % 55		0-1.651.860: % 20 1.651.861-2.728.950: % 35 2.728.951-5.431.125: % 45 hortik gorakoak: % 55		0-2.000.000: % 20 2.000.000,01-3.000.000: % 35 3.000.000,01-5.000.000: % 45 hortik gorakoak: % 55
GAZTELA- MANTXA				0-1.400.000: % 20 1.400.001-2.300.000: % 35 2.300.001-4.500.000: % 45 hortik gorakoak: % 55	
KANARIAK				0-1.322.226,63: % 20 1.322.226,64-2.187.684,06: % 35 2.187.684,07-4.363.347,88: % 45 hortik gorakoak: % 55	
KANTABRIA				0-1.450.000: % 24 1.450.000,01-2.300.000: % 38 2.300.000,01-4.500.000: % 49 hortik gorakoak: % 60	
KATALUNIA				0-1.322.226,63: % 20 1.322.226,64-2.187.684,06: % 35 2.187.684,07-4.363.347,88: % 45 hortik gorakoak: % 55	
MADRILGO ERKIDEGOA				0-2.000.000: % 22 2.000.000,01-3.000.000: % 30 3.000.000,01-5.000.000: % 40 hortik gorakoak: % 45	
MURTZIA	0-1.500.000: % 25 1.500.001-2.400.000: % 42 hortik gorakoak: % 55	0-1.560.000: % 25 1.560.001-2.496.000: % 42 hortik gorakoak: % 55		0-1.606.800: % 25 1.606.801-2.570.880: % 42 hortik gorakoak: % 55	
NAFARROA				0-1.322.226,63: % 20 1.322.226,64-2.187.684,06: % 35 2.187.684,07-4.363.347,88: % 45 hortik gorakoak: % 55	
VALENTZIAKO ERKIDEGOA				0-1.322.226,63: % 20 1.322.226,64-2.187.684,06: % 35 2.187.684,07-4.363.347,88: % 45 hortik gorakoak: % 55	0-2.000.000: % 15 2.000.000,01-4.000.000: % 30 4.000.000,01-6.000.000: % 40 hortik gorakoak: % 50

VII. ZERGA-BILKETAREN BILAKAERA.

Jokoaren gaineko zergen bitartez 61,3 milioi euro bildu dira 2011n Euskal Autonomia Erki-degoan; 2010ean baino 6 milioi euro gutxiago, % 8,5, alegia. Zenbateko horren % 63,6, joko-makinei esker bildu da (tasa eta errekar-gua); % 29,9 bingo-jokoak ekarri du (zerga eta tasa); eta kasinoek eta apustuek eragin dutena, berriz, % 6,6ra baino ez da heldu.

Joko-jardueren bidez 2003an bildu zen diru gehien; 84,4 milioi euro, hain zuzen. Garai

hartan, joko-makinek eta bingo-jokoak ziren, erdi bana, ia-ia diru-iturri bakarrak.

Halatan, osagarri horien bilakaera desberdina izan da azken urteotan. Alde batetik, joko-makinen bidez bildutakoak nolabaiteko egonkortasuna izan du, nahiz eta 2007tik aurrera suspertze arin bat ere antzeman den. Bingo-jokoaren diru-bilketak, aitzitik, nahiz eta urte batzuetan mantendu egin den, okerragotze larria eduki du; izan ere, ia % 60 egin du behera, 42 milioi eurotik 18 milioi eurora, hain zuzen.

JOKOAREN ZERGA-BILKETA EUSKADIN, 2000-2011 (milioika eurotan)

urtea	bingoaren gaineko tasa	bingoaren gaineko zerga	makinen gaineko tasa	makinen gaineko errekar-gua	kasino eta best. gaineko tasa	guztira
2000	34,9	7,1	27,6	3,9	3,9	77,4
2001	34,5	6,9	29,2	4,1	3,7	78,3
2002	35,4	7,1	33,6	4,0	3,4	83,4
2003	34,5	6,9	35,5	4,2	3,8	84,9
2004	34,1	6,8	34,8	4,2	3,8	83,8
2005	34,5	7,0	33,1	4,0	5,2	83,7
2006	32,1	6,4	32,6	4,0	4,3	79,3
2007	31,3	6,3	33,8	3,9	3,6	78,9
2008	27,7	5,6	31,9	3,9	3,6	72,7
2009	23,2	4,6	32,6	3,9	3,0	67,3
2010	21,4	4,3	33,9	4,0	3,5	67,1
2011	15,3	3,0	34,8	4,2	4,0	61,3

Hortaz, joko-jardueren bitartez bildutako guztiaren joerak, jarraitu egin dio bingo-jokoaren bidez bildutakoaren bilakaerari. Hala ere, joera horretan salbuespen bat dago: trabesak. Apustuek, alabaina, gorakada nabarmena izan dute azken urteotan; apustu-lokal berriak zabaldu ez ezik apustu-makinak ere ugaltu egin dira ostalaritzako lokaletan.

Izan ere, apustuen goranzko joera hori aipagarria da: 2010etik 2011ra apustuen kopuruak % 42,5 egin du gora; eta jokatutako guztizko zenbatekoa 128 milioi euroraino heldu da, % 25,5 gehiago. Horrekin batera, trabesen gaineko zergen bidez bildutakoa ere % 32,2 hasi da, hau da, 2 milioi eurotik gora bildu da, alegia, aurreko urtean baino milioi erdi euro gehiago.

		apustu-kopurua			jokatutakoa/drop		
		2010	2011	bilakaera (2010-2011)	2010	2011	bilakaera (2010-2011)
ARABA	apustu-lokalak	498.300	927.200	% 86,1	5.774.200	7.055.300	% 22,2
	ostalaritza-lokalak	1.574.300	2.050.100	% 30,2	9.737.100	13.681.200	% 40,5
BIZKAIA	apustu-lokalak	2.072.400	3.377.500	% 63,0	23.269.900	28.829.800	% 23,9
	ostalaritza-lokalak	5.011.800	6.862.800	% 36,9	29.050.000	37.038.100	% 27,5
GIPUZKOA	apustu-lokalak	1.263.900	1.861.500	% 47,3	15.625.300	17.924.800	% 14,7
	ostalaritza-lokalak	2.712.800	3.636.800	% 34,1	18.856.100	23.893.700	% 26,7
GUZTIRA		13.133.500	18.715.900	% 42,5	102.312.600	128.422.900	% 25,5

Jarduera horrek ezarrita duen zerga-tasa % 10 da, *winaren* gainean; hots, % 1,6 *droparen* edo jokatutakoaren gainean. Sarietan banatzen den batez bestekoa, berriz, % 85era iristen da, apur bat gutxiago ostalaritzako lokaletan (% 83), eta gehiago apustu-lokaletan (% 87).

VIII. BINGO-JOKOAREN GAINEKO ZERGA-ARAUDIA EUSKADIN.

Ekonomia Itunaren 36. artikulua ezartzen duenez, jokoaren gaineko zergak itundutako zergak dira eta araudi autonomikoa aplikatu behar zaie, baimena Euskadin eman behar zaien kasuetan. Hala ere, zergapeko egitateari eta subjektu pasiboari dagokienez, Estatuak unean-unean ezarrita duen arautegia aplikatuko da.

Atal berean, 37. artikuluari jarraituz, lurraldearen arabera eskumena daukan foru aldundiak ordainaraziko du jokoaren gaineko tasa, betiere, zergapeko egitatea Euskadin egiten bada.

Euskadiko araudi sustantibora jo behar du jokoaren gaineko zerga-araudiaren nondik norakoa aztertzeko, Autonomia Estatuak ezartzen baitu 10.35. artikuluan Erkidegoaren bakarreko eskumenak direla kasino, joko eta apustuak, Kirol eta Ongintzako Elkarrekiko Apustuak izan ezik.

Bakarreko eskumen hori garatze aldera, Eusko Legebiltzarrak Euskal Herriko Autonomi Elkartean joko arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legea eman zuen⁸.

⁸ Honako bi lege hauek aldatua: 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa; 14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.

Eta beste batzuen artean, honako hauen bidez garatua:

- 39/2012 Dekretua, martxoaren 20koa, joko-kasinoen Erregelamendua onartzen duena.

Gaur egun indarrean dagoen jokoaren gaineko zerga-sistema honako hauetan zehazten da:

- joko-makinatarako urteko tasa finkoan;
- bingorako *droparen* gaineko % an;
- kasino eta apustuatarako *winaren* gaineko % an.

Hainbat dira bingo-jokoaren gainean ezarrita dauden zergak. Alde batetik, Lurralde Historiko bakoitzak jokoaren gaineko zergaren araua dauka indarrean (ikus 6. oin-oharra). Arau horietan esaten da ezen, bingo-jokoan zerga-oinarria izango dela jokalariek kartoiak erosteko ordaintzen duten diru-zenbateko guztia, kenketarik gabe (*drop*). Foru-arau horiek % 20ko zerga-tasa orokorra ezarri zuten hiru lurraldeetan. Hala ere, 2011ko martxoaren 1etik aurrera, bingoak berriazko tasa dauka: % 18,4 (2011. urterako zergen arloko neurriak onartzen dituen foru-arauek ezarria).

Beste alde batetik, 6/1992 Legeak, urriaren 16koa, Bingo Jokuaren gaineko Zergari eta zoripeco Jokuak egiteko bide ematen duten makinez eta gailu automatikoez balliatuz egiten diren jokuen gaineko Tasaren errekargoari buruzkoak, bingo-jokoa kargatzen du % 3,6ko zerga ezarriz *droparen* gainean (2011ko martxoaren 1a baino lehen % 4 zen).

Aipatutako zerga bi horietaz aparte, lurralde historikoek beste zerga bat daukate ezarri-

- 600/2009 Dekretua, 2009ko azaroaren 17koa, Joko-makina eta -sistemen Erregelamendua onartzen duena.

- 95/2005 Dekretua, apirilaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Apustuen Erregelamendua onesten duena.

- 31/2004 Dekretua, otsailaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko bingo-jokoaren araudia onesten duena.

- 277/1996 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomi Elkarteko Jokoen Katalogoa onartzen duena.

- 380/1994 Dekretua, urriaren 4koa, joko-aretoen eta jolas-aretoen araudia onartzen duena.

- 314/1994 Dekretua, uztailaren 19koa, boletoen bidezko joko arautzen duena.

ta: bingo-kartoiaren salmentagatik tasa. Tasa hori bingo-kartoiak erosten dituzten pertsona fisiko edo juridikoek ordaindu behar dute. Zerga horren zenbatekoa 0,006784 euro da kartoi bakoitzeko⁹. Zenbateko hori bingo-kartoiaren horniduraren kostu unitarioaren arabera zehazten da, kartoiaren inprimatutako balioa edozein izanda ere.

Azkenik, 1/2007 Legegintzako Dekretuak, irailaren 11koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoetarako Buruzko Legearen testu bategina onartzeko denak, jokorako baimenarengatik ordaindu beharreko tasa arautzen du. Tasa horren zergapeko egitatea honako zerbitzu hauek ematea da: jokorako tresnak homologatzeko proba teknikoak; erregistroetan izena ematea; agiri profesionalak ematea; hainbat motatako administrazio-baimenak; arauzko liburuaren eginbideak egitea eta Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak joko-prozedurei buruzko perituedo teknikari-txostenak egitea.

IX.- ON-LINE JOKOA. JOKO-JARDUEREN GAINEKO ZERGA.

Nahiz eta itundu barik egon, ezin utzi aipatu gabe Estatu-mailan onartutako 13/2011 Legea, maiatzaren 27koa, Joko-jardueren

gaineko Zerga arautzen duena. Lege horretan aipamen berezia egiten zaie baliabide elektronikoak, informatikoak, telematikoak eta interaktiboak erabiltzen dituzten jokoei; horrez gain, VII. tituluan zerga berria ezartzen du joko-jardueren gainean. Zerga berri hori bateragarria da autonomia-erkidegoei lagatako zergekin eta Euskadiko eta Nafarroako zerga itunduekin, eta horrexegatik ez dauka inolako eraginik orain arte aipatutako zergetan. Aitzitik, itundu gabe badago ere, egoki irizten da 13/2011 Legearen zergapetzeari buruz iruzkina egitea, joko bakoitzeko ezartzen duen zerga-tasa aipatuz:

⁹ ARABA. Jokoaren gaineko Tasa Fiskalaren Foru Araua, 1981eko maiatzaren 31koa (17.4 artikulua).

57/2009 Foru Dekretua, uztailaren 14ko Diputatuen Kontseiluarena. Horren bidez, eguneratu egiten da bingo jokoan kartoiak duen prezioa, Jokoaren gaineko Zergaren ondorioetarako.

BIZKAIA. Bizkaiko Lurralde Historikoan Jokoaren gaineko Zerga arautzen duen martxoaren 10eko 2005/3 Foru-Arauaren xedapen gehigarria.

113/2009 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiarena, uztailaren 21ekoa. Horren bidez bingo-kartoiaren salmentaren gaineko tasaren zenbatekoa eguneratzen da.

GIPUZKOA. Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. xedapen gehigarria.

30/2009 Foru Dekretua, irailaren 15ekoa. Horren bidez bingo-kartoiak erosteagatik ordaindu beharreko tasa eguneratzen da.

			<i>droparen gainean homegeneizatua</i> ¹⁰
Elkarrekiko kirol apustuak	% 22	<i>droparen gainean</i>	% 22,00
Kontrapartidako kirol apustuak	% 25	<i>winaren gainean</i>	% 3,75
Kirol trabesak	% 25	<i>winaren gainean</i>	% 3,75
Hipikako elkarrekiko apustuak	% 15	<i>droparen gainean</i>	% 15,00
Hipikako kontrapartidako apustuak	% 25	<i>winaren gainean</i>	% 3,75
Bestelako elkarrekiko apustuak	% 15	<i>droparen gainean</i>	% 15,00
Bestelako kontrapartidako apustuak	% 25	<i>winaren gainean</i>	% 3,75
Bestelako trabesak	% 25	<i>winaren gainean</i>	% 3,75
Errifak	% 20	<i>droparen gainean</i>	% 20,00
Herri-onurarako edo ongintzarako errifak	% 7	<i>droparen gainean</i>	% 7,00
Lehiaketak	% 20	<i>droparen gainean</i>	% 20,00
Bestelako jokoak	% 25	<i>winaren gainean</i>	% 3,75

¹⁰ Kontuan izan da *wina* % 15 dela; hau da, jokatu den diru-zenbateko guztiaren %85a erabili dela sariak banatzeko.